



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2018KO MAIATZAREN 8AN  
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Xabier Arregi Iparragirre.

**Zinegotziak:** Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

**Ezin-etorria adierazi dute:** Irene Gartzia Palaciosek eta Josune Estella Arranzek.

**1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2018/04/24.**

Batzarkideek, 2018ko apirilaren 24ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- EGUNEKO ZENTROAREN KUDEAKETA KONTRATUA 2013-2017. BERMEA ITZULTZEA.**

Esp. zk.: ID.05/2013-0443

**IKUSIRIK**

2013ko azaroaren 16an Eguneko Zentroaren kudeaketarako kontratua sinatu zen Usurbilgo Udala eta GESTION DE SERVICIOS RESIDENCIALES, COOP.-ren artean. Luzapen guztiak burutu ziren eta lizitazioaren ondorioz kontratu berria ere enpresa berdinari esleitu zitzaion 2018ko otsailaren 14ean. Enpresak 18.312'78 euroko behinbetiko bermea jarri zuen.

Gestión de Servicios Residenciales Coop.ek aipaturiko bermea itzultzeko eskaera egin du.

**KONTUTAN HARTURIK**

Ongizate Saileko arduradunak bermea itzultzearen aldeko txostena eman du.

Pertsonal eta kontratazio teknikariak ere aldeko txostena eman du.

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki du aho batez:

**ERABAKIA**



Usurbilgo Udala

**LEHENENGOA:** GESTION DE SERVICIOS RESIDENCIALES, S.COOP. Eguneko Zentroaren kudeaketarako kontratuan jarritako behin betiko bermea, 18.312'78 eurokoa, itzultzea.

**BIGARREN:** Erabaki honen berri GESTION DE SERVICIOS RESIDENCIALES, S.COOP. Enpresari eta kontu-hartzaileari ematea.

### **3.- EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.**

Esp.zk.: KE.01/2018-0082

#### **Ikusirik**

Usurbilgo Udaleko Euskararen Ordenantzak bere 39. artikuluan dio Udalak neurri egokiak hartuko dituela euskara gizarte esparru guztietan erabil dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin. Horretarako, Ordenantzaren arabera, bitartekoetako bat euskararen zabalpen funtzionala da, alegia, euskaldunen kopurua handitzea eta hobeagotzea, euskara ez dakitenek ikasi dezaten bideak jarri, eta dakitenek alfabetatu daitezen bitarteko egokiak bideratzea.

Usurbilgo Udalak oso garrantzitsutzat irizten dio helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragiteari. Horregatik hain zuzen ere, aurrekontu partida bat ezarri du 2017-2018 ikasturtean zehar euskalduntze ikastaroetara joan diren Usurbilgo biztanleei beka emateko.

#### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa (2017/07/18)

Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez erabaki du:

### **E R A B A K I A**

**Lehenengoa:** Euskara ikasleentzat diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eranstean zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidetan azaltzen diren diru izendapenak: 1.4200.480.335.00.01 2018 (A 217/2018)

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**Laugarrena:** Interesatuei epe hau ematea eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin: 2018ko ekainaren 25etik uztailaren 6ra bitartean (biak barne)

**Bosgarrena:** Oinarrien berri kontuhartzaileari emango zaio.



Usurbilgo Udala

#### **4.- BEHAR EKONOMIKO BEREZIAK DITUZTENENTZAKO EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.**

Esp.zk.: KE.01/2018-0081

##### **Ikusirik**

Usurbilgo Udalari garrantzitsua iruditzen zaio herritarrek euskara ikastea. Gero eta gehiago dira Euskaltegiko matrikula ordaintzeko arazo bereziak dituzten herritarrak. Bide honetatik, behar ekonomiko bereziak dituzten herritarrei euskara ikastea erraztu nahi zaie.

Horregatik hain zuzen ere, Usurbilgo Udalak aurrekontu partida bat ezarri du euskara ikasteko behar ekonomiko bereziak dituzten herritarrei diru-laguntzak aurreratzeko.

##### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa (2017/07/18)

Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez erabaki du:

#### **ERABAKIA**

**Lehenengoa:** Behar ekonomiko bereziak dituzten usurbildarrei euskara ikasteko matrikularen diru-kostua aurreratzeko oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eranstean zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidetan azaltzen diren diru izendapenak: 1.4200.480.335.00.01 2018 (A217/2018)

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**Laugarrena:** Interesatuei epe hau ematea eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin: iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den datatik, 2019ko uztailaren 5ra bitartean (biak barne)

**Bosgarrena:** Oinarrien berri kontuhartzaileari emango zaio.

#### **5.- AISIALDIKO BEGIRALE EDO ZUZENDARI IKASTAROAK EGIN DITUZTENENTZAT DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.**

Esp.zk: 01/2018-080

##### **Ikusirik**



Usurbilgo Udala

Usurbilgo Udaleko Euskararen Ordenantzak bere 39. artikuluan dio Udalak neurri egokiak hartuko dituela euskara gizarte esparru guztietan erabil dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin.

Aisialdia gizarte bizitza horretako zati bat da eta gure gizartean gero eta garrantzia handiagoa duena gainera.

Aisialdiko begirale eta zuzendariak berariaz eta era egokian prestatua egotea garrantzitsua ikusten du udalak. Are gehiago, prestakuntza hori euskaraz jasotzea garrantzitsua iruditzen zaio udalari.

Horregatik hain zuzen ere, aurrekontu partida bat ezarri du 2017-2018 ikasturtean zehar aisialdiko begirale edo zuzendari ikasketak egin dituztenentzako biztanleei bekak emateko.

Bide honetatik, Usurbilgo Udalak aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroa egin dutenentzat diru-laguntzak bideratzeko diru-laguntza oinarriak prestatu ditu.

#### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa (2017/07/18)

Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez erabaki du:

### **E R A B A K I A**

**Lehenengoa:** Aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzat diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eransten zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidetan azaltzen diren diru izendapenak: 1 4400 481 326 00 01 2018 (A 216/2018)

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**Laugarrena:** interesatuei epe hau ematea eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin: 2018ko ekainaren 25etik uztailaren 6ra bitartean (biak barne)

**Bosgarrena:** Oinarrien berri kontuhartzaileari emango zaio.

#### **6.- 2018RAKO HASIZ HAZI BEKAREN OINARRIAK ONARTZEA.**

Esp.zk.: HE.06/2018-26

#### **Ikusirik**



Usurbilgo Udala

Usurbilgo Udalak, 2018an proiektu berri bat duen ekintzaileari laguntzeko bideratuko du Hasiz Hazi beka.

Beka hau Kabiene eta Usurbilgo Udalaren arteko lankidetzan oinarritzen da. Proiektu berri bat duen ekintzaileari, urtebeteko egonaldia diruz ordainduko zaio Kabiene elkarteak duen elkarlan gunean, lanerako espazio bat ez ezik, baliabideak eta esperientziak partekatzeko leku bat izan dezaten.

Beterri -ekinean zerbitzutik tutorizazio bat ere emango da, eta enpresa abian jartzea eta finkatzearekin lotutako laguntzak ere eskainiko zaizkio, horrela badagokio

Oinarri hauen helburua da, ekintzaileak bere enpresa proiektua garatzen duen bitartean laguntzeko baliatuko diren arauak biltzea, norgehiagoka erregimenean eta 2018. urterako.

Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III kapituluaren I. Atalak ezartzen duenari jarraiki.

#### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udaleko 2017-2019ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen berdintasunerakoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez erabaki du:

### **E R A B A K I A**

**Lehenengoa:** 2018rako Hasiz Hazi bekaren oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eransten zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko 1.5000.481.241.00.02 partidatik ezartzen diren 2.178 €.

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

**Laugarrena:** Eskakerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, 2018ko irailaren 30 arte.

**Bostgarrena:** Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

**7.- 2018AN USURBILEN HUTSIK DAGOEN MERKATARITZA LOKAL BATEAN JARDUERA EKONOMIKO BERRI BAT IPINI NAHI DUEN EKINTZAILEARENTZAT DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.**



Usurbilgo Udala

Esp.zk.: HE.06/2018-0027

## **Ikusirik**

Usurbilgo Udalak, 2018an ekintzaileei laguntzeko eta Usurbilen hutsik dauden merkataritza lokaletan jarduera ekonomiko berriak sustatzeko asmoz, lokalaren alokairurako diru-laguntza arautu du.

Oinarri hauen helburua da Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen oinarri erregulatzailerak ezartzea, norgehiagoka erregimenean, 2018. urtean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duen edonorentzat, pertsona fisiko nahiz juridikoa, ekintzaile interesatuaren bizilekua edozein izanda ere, Usurbil edo beste udalerrri bat. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III kapituluaren I. Atalak ezartzen duenari jarraiki.

## **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udaleko 2017-2019ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen berdintasunerakoa.

## **Tokiko Gobernu Batzarrek aho batez erabaki du:**

### **E R A B A K I A**

**Lehenengoa:** 2018an Usurbilen hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat ipini nahi duen ekintzailearentzat diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi erantzen zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Diru-laguntza aurrekontu-partida honen kargura joango da 1.5000.481.241.00.02, gehienez ere 7.200 € erabiliko dira 1. urteko alokairurako eta 4.800 € bigarren urterako.

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

**Laugarrena:** Eskerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, 2018ko irailaren 30arte.

**Bostgarrena:** Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:00etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**